

ANA LEUNDA GURRUTXAGA
CANDIDATA A LA ALCALDÍA
DE IRURA

MARKEL OLANO ARRESE
CANDIDATO A DIPUTADO GENERAL
DE GIPUZKOA

Ana-Leunda
@leundaana
gipuzko.eus/herriak/Irura

markelolano
@markelolano
@markel_olano
markelolano.eus

***¡Nos mueve Irura, nos mueves tú!***

*Nos mueve este Pueblo. Nos mueve este Territorio. Somos el Partido municipalista, el único capaz de presentar candidaturas en todos los Ayuntamientos. Porque salimos de nuestros pueblos. Nuestras candidatas y candidatos son gente normal, de la calle, con vocación de servicio público y ganas de comprometerse por este Territorio Histórico. Estos cuarenta años de autogobierno y de Instituciones Vascas han permitido a los municipios de Gipuzkoa dar un salto de gigante en servicios sociales, en equipamientos culturales y deportivos, en transporte, en empleo… en definitiva, en calidad de vida. La mayor parte de esas Instituciones Vascas, tanto municipales como forales, han crecido de la mano del PNV. Debemos seguir trabajando para dejar a las nuevas generaciones un lugar en el que puedan vivir bien, con bienestar y desarrollo económico garantizado. Es hora de mejorar y crecer sobre lo ya construido. Quedan aún muchos retos. El PNV está preparado. Tenemos buenas ideas y personas competentes y honradas para llevarlas a cabo. Danos tu confianza y no te defraudaremos. Nos mueve la ilusión por ver un Irura cada vez más próspero. Nos mueves tú.*

## UN EQUIPO PREPARADO PARA TRABAJAR PARA TI

Nos volvemos a presentar con ilusión y responsabilidad. Con ilusión porque queremos consolidar el camino que iniciamos hace cuatro años y situar a Irura en clave de futuro. Y con responsabilidad porque diseñar el Irura del mañana no es un objetivo cualquiera. Pero las personas que conformamos EAJ-PNV estamos preparadas. Reafirmamos nuestro compromiso con los irurarras, cumpliremos la palabra dada y continuaremos gestionando de manera eficaz. Seguiremos dando a nuestro pueblo el impulso que necesita, situando la economía y las políticas sociales en el centro de nuestra acción diaria para mejorar así la calidad de vida de todos y todas.

Queremos seguir gestionando con honestidad y responsabilidad, tomando como eje todas estas preocupaciones ciudadanas. Seguiremos trabajando por una Irura fuerte.



DE IZDA. A DCHA.: Jose Ramón Epelde Irizar, Jesús Mari Alonso Insausti, Amaia Ormazabal San Martín, Marta Castrillo Iturralde, Ana Leunda Gurrutxaga, Begoña Urcola Odriozola, Kepa De la Iglesia Sánchez, Cristina Santos San Sebastián y Anaje Armendariz Leunda.



*"Seguiremos construyendo el Irura que garantice el bienestar de todos y todas"*

ANA LEUNDA GURRUTXAGA

*CANDIDATA A LA ALCALDÍA DE IRURA*

Ana-Leunda




### ›1 IMPULSAR NUEVOS COMERCIOS Y EMPLEO DE CALIDAD

El tejido empresarial de Irura y alrededores es fuerte, y seguiremos trabajando para que lo siga siendo. Reforzaremos las relaciones que tenemos con las empresas, con el fin de abogar por el empleo de calidad y analizar nuevas oportunidades económicas que nos brinda Irura. Daremos ayudas para la creación de nuevos comercios.

### ›2 REFORMAR EL AYUNTAMIENTO PARA HACERLO ACCESIBLE Y SOSTENIBLE

Remodelaremos el Ayuntamiento de Irura. Realizaremos trabajos de reforma para conseguir un edificio sostenible y energéticamente eficiente. Para potenciar el bienestar de todos los y las vecinas, tendremos en cuenta la accesibilidad, se colocará un ascensor y se renovarán los aseos públicos.

### ›3 CREAR NUEVOS ESPACIOS PEATONALES PARA LA COMODIDAD DE LOS IRURATARRAS

Mejoraremos diferentes espacios pensando en los y las viandantes. Convertiremos en calle peatonal la zona entre Gregorio Ameztoi y Pello Arrese, y se acondicionarán los alrededores del río por donde muchas personas pasean. También, instalaremos un baño público en el paseo Ibai Gain respondiendo así a las peticiones de los y las iruratarras.

### ›4 LLEVAR A CABO UN ESTUDIO PARA CREAR UN NUEVO BIDEGORRI

Otro de nuestros proyectos consiste en crear un bidegorri desde Laskibar hasta el casco urbano de Irura. Para ello realizaremos un estudio previo que analice diferentes propuestas. Contar con un bidegorri en nuestro municipio beneficiará a las personas que deseen desplazarse en bicicleta con total comodidad y seguridad.

### ›5 ADECUAR Y MEJORAR LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS DE IRURA

Con el fin de impulsar la actividad física, mejoraremos las infraestructuras que tenemos en Irura para tal fin. Acondicionaremos los espacios y servicios deportivos, entre ellos el frontón y el trinquete, que los conectaremos entre sí. Así mismo, haremos trabajos de mejora también en el gimnasio.

### ›6 IMPULSAR EL ALQUILER SOCIAL, SOBRE TODO ENTRE LAS Y LOS MÁS JÓVENES

Continuaremos teniendo en cuenta la situación socio-económica de los iruratarras y tomando medidas que beneficien a la juventud, como por ejemplo, el impulso del alquiler social. Tal y como venimos haciendo en los últimos cuatro años, mantenemos nuestro compromiso y medidas con los y las jóvenes de Irura.

### ›7 GARANTIZAR EL BIENESTAR DE TODAS Y TODOS LOS IRURATARRAS

Uno de nuestros objetivos principales es garantizar en todo momento el bienestar de los y las iruratarras. Mantendremos la oferta de actividades que ha habido hasta el momento e impulsaremos nuevas acciones para personas mayores. Le sacaremos más partido al hogar del jubilado con talleres de prevención, por ejemplo.




### ›8 SEGUIR REFORZANDO Y DIFUNDIENDO NUESTRA IDENTIDAD

El xare, euskera, los bailes, la música y la cultura vasca en su conjunto definen la identidad de nuestro municipio y como hasta ahora, seguiremos fomentando todo ello. Queremos mantener y reforzar esa identidad euskaldun que ya tiene de por sí Irura y que nos sirve para dar a conocer nuestro pueblo.

### ›9 CREAR UN NUEVO PASEO JUNTO AL RÍO DE IRURA

Acondicionaremos el paseo alrededor del río Oria que hoy día utilizan las y los vecinos. Con el nuevo paseo conectaremos el final del actual paseo Ibai Gain y la calle Errekalde. El suelo será permeable para evitar pozos, habrá nueva iluminación y bancos para sentarse.

### ›10 AMPLIAR LA OFERTA CULTURAL Y DE OCIO PARA NIÑOS, NIÑAS Y JÓVENES

Queremos fomentar actividades con el fin de conseguir un pueblo dinámico para niños y niñas, adolescentes y jóvenes. Además de la oferta actual, impulsaremos nuevas actividades para el ocio y tiempo libre, y para ello pondremos los recursos necesarios. Como ejemplo, renovaremos el parque de abajo.






**ANA LEUNDA GURRUTXAGA**
IRURAko
ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

Ana-Leunda
@leundaana
gipuzko.eus/herriak/Irura

**MARKEL OLANO ARRESE**
GIPUZKOAko DIPUTATU NAGUSIRAKO
HAUTAGAIA

markelolano
@markelolano
@markel_olano
markelolano.eus


***Irurak mugiarazten nau, zuk mugiarazten gaituzu!***

*Herri honek mugiarazten gaitu. Lurralde honek mugiarazten gaitu. Alderdi munizipalista gara, udalerri guztietan hautagaitzak aurkezteko gai den bakarra. Gure herrietatik atera garelako. Gure hautagaiak pertsona arruntak dira, kalekoak, herritarren zerbitzura lan egiteko borondate irmoa dutenak eta Lurralde Historiko honen alde konpromiso sendoa hartzeko gogotsu daudenak. Euskal Autogobernuak eta Euskal Erakundeek bete dituzten berrogei urteotan, Gipuzkoako udalerriek aurrerapauso itzela eman dute bai gizarte zerbitzuetan zein kultur eta kirol ekipamenduetan, garraioan, enpleguan… bizi-kalitatean, alegia. Euskal erakunde gehienak, udal zein foru mailakoak, EAJren eskutik garatu dira. Datozen belaunaldiak ongizatean bizi daitezen, garapen ekonomikoa bermatua izan dezaten lanean jarraitu behar dugu. Eraikitakoa oinarri harturik garatzeko eta hobetzeko ordua da. Erronka ugari ditugu aurretik eta EAJ prest dago. Ideia onak zein pertsona zaildu eta zintzoak ditugu horiek aurrera eramateko. Zure konfidantza emaiguzu eta ez dizugu hutsik egingo. Gero eta Irura oparoagoa ikusteko ilusioak mugiarazten gaitu. Zuk mugiarazten gaituzu.*

## ZURE ALDE LAN EGITEKO PRESTATURIK DAGOEN TALDEA

Ilusioz eta arduraz aurkezten gara berriro Irurako alkatetzarako. Ilusioz, azken lau urtetan abiatu ditugun proiektuak finkatu eta eskuartean dauzkagun hamaika ideiak aurrera eramateko. Eta, arduraz, gure herriari behar duen etorkizun sendoa ematea ez delako nolanahiko erronka. Baina EAJ-PNV ordezkatzen dugun kideok prest gaude. Herritarrenganako konpromisoa berretsi, hitza bete eta kudeaketa fina egiteko borondate ona daukagulako. Herriari behar duen bultzada ematen jarraituko dugu, arlo ekonomikoa eta soziala politika publikoen ardatz izango direlarik, herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetu nahi ditugulako.

Arduraz eta zintzotasunez kudeatzen jarraitu nahi dugu, elkarlanetik, gai horiek guztiak aintzat hartuz. Irura sendo baten alde egiten jarraituko dugu. Irurari eta irurarrei bide emanez.



EZKERRETIK ESKUINERA: Jose Ramón Epelde Irizar, Jesús Mari Alonso Insausti, Amaia Ormazabal San Martín, Marta Castrillo Iturralde, Ana Leunda Gurrutxaga, Begoña Urcola Odriozola, Kepa De la Iglesia Sánchez, Cristina Santos San Sebastián eta Anaje Armendariz Leunda.



*“Guztion ongizatea bermatuko duen Irura eraikitzen jarraituko dugu”*

**ANA LEUNDA GURRATXAGA**

*IRURAko ALKATETZARAKO HAUTAGAIA*

Ana-Leunda



ONGIZATEA BERMATU

### ›1 KALITATEZKO ENPLEGUA BERMATU ETA NEGOZIO BERRIAK SUSTATU

Herriko enpresa ehuna sendoa da eta horrela izan dadin lanean jarraituko dugu. Horretarako, udal eta enpresen arteko harremanak indartuko ditugu, kalitatezkoa den enplegua bermatzeko eta Iruran ditugun ekonomia aukera berriak aztertzeko. Merkataritza berria sortzeko diru laguntzak ere emango ditugu.

### ›2 UDALETXEA ERABERRITU GAUR EGUNGO BEHARREI ERANTZUTEKO

Irurako Udaletxea eraberrituko dugu. Eraikin jasangarria, energetikoki efizientea eta herritarren ongizatea bermatzeko asmoz, eraberritze-lanak egingo ditugu. Iruratar guztien beharrei erantzuteko irisgarritasuna kontuan izango dugu, igogailua jarriko da eta komun publikoak instalatuko dira.

### ›3 OINEZKOEI LEHENTASUNA EMAN ETA GUNE BERRIAK SORTU

Oinezkoentzat herrian dauden gune ezberdinak hobetu eta berriak sortuko ditugu. Gregorio Ameztoi eta Pello Arrese arteko kalea oinezkoentzat bihurtuko dugu, besteak beste. Ibai Gain pasealekuan ere komun publiko bat jarriko dugu iruratar guztien zerbitzura.

### ›4 IRURAN BIDEGORRIA JARTZEKO AUKERAK AZTERTUKO DITUGU

Irurako puntu ezberdinak konektatuko dituen bidegorri bat eraikitzea da gure proiektuetako bat. Aukera ezberdinak kontuan izango dituen azterketa egingo dugu. Herrian bidegorri bat izateak herritarrak erosotasun eta segurtasun osoz bizikletan ibiltzea ahalbidetuko du.

### ›5 IRURAKO KIROL-GUNEAK EGOKITUKO DITUGU

Iruran kirola egin ahal izateko ditugun guneak eta zerbitzuak egokitu egingo ditugu. Besteak beste, trinketea eta frontoia konektatzeko lanak egingo ditugu, eta baita gimnasioa egokitu ere.

### ›6 ALOKAIRU SOZIALAK SUSTATUKO DITUGU

Iruratarren egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartuta alokairu sozialak sustatzen jarraituko dugu. Azken urte hauetan bezala, herriko gazteekin dugun konpromisoa berresten dugu eta hauen bizi kalitatea bermatzeko neurriak mantendu eta indartuko ditugu.

### ›7 IRURATAR GUZTIEN ONGIZATEA BERMATU GURE LEHENTASUNA

Irurako herritar guztien ongizatea bermatzea da gure helburu nagusia, baita adinekoena ere. Horretarako, orain arteko eskaintzak mantendu eta berriak sustatuko ditugu. Jubilatuen lokalari etekin gehiago aterako diogu, ekintza berriekin, prebentzio tailerrekin, etab.



UDALETXEA ERABERRITU

### ›8 IRURAKO NORTASUNA INDARTU ETA ZABALTZEN JARRAITU

Gure herriaren nortasuna zehazten duten elementuak indartuko ditugu: xarea, euskara, dantza, musika… eta kultura orokorrean. Orain arte bezala, horiek guztiak sustatzen jarraituko dugu, Irurak berezko duen nortasun euskalduna indartzeko eta baita Irura kanpoan ezagutarazteko.

### ›9 IRURAKO ERREKAREN ERTZEAN PASEALEKU BERRIA

Gaur egun Oria ibaiaren inguruan herritarrek erabiltzen duten pasealekua egokitu egingo dugu. Ibai Gain pasealekuaren amaiera eta Errekalde kalea konektatuko ditugu pasealeku berriarekin, lurzoru iragazkorra, argiteri berria eta atsedenerako eserlekuekin.

### ›10 HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAT ESKAINTZAK HANDITU

Irura herri dinamikoa izaten jarraitu dezan, herriko haur, nerabe eta gazteentzat aukerak sustatuko ditugu. Gaur egungo eskaintzaz gain aisiarako ekintza berriak bultzatuko ditugu eta beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira. Besteak beste beheko parkea eraberrituko dugu.

